

Nobela beltzen trilogia itxi du Prat Urzainkik lan berriarekin

“Muga hautsien hegala” argitaratu berri du Ernesto Prat Urzainkik. Honekin, “Lurra, Larru, Larra” izendatu duen trilogia itxi du. Baztan «arrunta» irudikatzen duten liburuen idazketa prozesuan, nobela beltzarekin adiskidetzeari lortu du. (H)ilbeltzan aurkeztuko du.



«Muga hautsien hegala» argitaratu berri du Ernesto Prat Urzainkik. Gorka RUBIO | FOKU

ADISKIDETZEA

2017an lehenengo eleberri beltza idatzi zuenean, prozesua «traumatikoa» izan zen Prat Urzainkirentzat. Orain, beste bi nobelaren ostean, generoarekin adiskidetzeari lortu du.

ko aurkezpenean azaldu zuenez, hiru liburuetan protagonista berberak «bere burua berrasmatu» eta izena aldatu badu ere, beste osagai batzuk bere horretan mantendu ditu; esaterako, hirurak «Baztan zehatz batean» gertatzen direla, «postal turistikotik ihesi doan Baztan batean», hain zuzen.

Azken atal hau idaztearekin batera, nobela beltzaren generoarekin adiskidetzeari lortu du idazleak. Aurkezpenean aitortu zuen 2017an “Telleria eta gero, zer?” idaztea «traumatikoa» izan zela berarentzat. «Trama osatzea eta korapiloak sortzea erraza da; horietatik ateratzea da zaila dena», zehaztu zuen. Orduan genero beltzarekiko distantzia hartu zuen, 2024an bigarren atala, “Mendeku eskubidea”, etorri zen arte.

Berria hiru hariren «txirikordatzeari» oinarritzen da. Lehena migratzaileen igarotzea da. Pandemia garaian kokatzen denez, orduan itxita zegoen Biriaturko mugatik igaro ezinik Baztanetik pasatzen ziren pertsonen errealtatea jaso du.

Bigarrena Telleria izeneko egitasmo urbanistikoa eta horren aurkako borroka da. Praten hitzetan, Aroztegiaren irudikapena da proiektu «espekulatzaile» hau.

Horrekin lotuta dago hiru garrena; 20 urte lehenago lurrraren defentsan egindako ekintza bat, alegia. Itoiz herria hutsarazi ondoren hustear zeuden Artozkin 2003an hainbat artistak beraien arte-lanak eman eta erakusketa bat antolatuta zuten. Idazleak azaldu zuenez, gaur egun batzuk berreskuratu dira eta beste batzuk ez dira agertu

Alaia SIERRA | DONOSTIA

Ernesto Prat Urzainkik idazleak bere hirugarren eleberri beltza argitaratu berri du, Elkar argitaletxearen eskutik. “Muga hautsien hegala” honekin trilogia itxi du, berriozartarrak “Lurra, Larru, Larra” izendatutako eleberrien hirukoa, hain zuzen. Datoren asteazken Baztango (H)ilbeltzan, euskarazko nobela

beltza sustatzeko topaketan, aurkeztuko du lan berria.

Ale honetan, Larrak –lehenik Lurra eta gero Larru izandakoak– bizitza berri bat hasi du: drogak eta gehiegikeriak utzita, gaztak egiten ikasi du Pirinioetan, eta artzaintzan dabil orain osaba Luzio eta Mirtaren Belzebenea base-rrian, pandemia garai betean.

Bizimodu lasaia eraman nahi izanda ere, berez datoz

arazoak, ordea: batetik, muga pasatu nahi duten gazte afrikarrak bolada batean gordezko eskatuko diete lagun batzuek; bestetik, espekulatzaile eta agintariak Telleria urbanizazio-proiektuarekin aurrera jarraitu nahi dute; azkenik, Itoitzekiko Solidarioen borroka zaharrak ere badu bere lorratza hemen.

Atzo Xabier Mendiguren editorearekin batera eginda-

Genero ikuspegiari begira, ezer gutxi aldatu da Zinemaldian ere

GARA | DONOSTIA

Ikus-entzunekoen sektoreko genero arrakalak badu bere isipilua nazioarteko zinema jaialdietan eta, horren jakitun, orain zazpi urte genero ikuspegiari buruzko txostena argitaratzeari ekin zion Zinemaldiak, egoeraren analisia egin eta sektorean eragiteko xedez.

2025eko edizioari begira osatu duten txostena eman zuten argitaratu atzo eta, datuek agerian uzten dutenez, aurreko edizioaren aldean ezer gutxi aurreratu da. Txostenean Hautespene Batzordeak ikusi dituen 3.200 filmak aztertzen

dira, kategoria nagusietan (zuzendaritza, ekoizpena, gidogintza, argazkia, musika, muntaketa, arte-zuzendaritza eta soinua) emakumeen parte hartzea zehazteko. Datu nagusia hau da: emakumezko profesionalak %15-%39 dira batez beste, eta arte-zuzendaritzan bakarrik dira gehiengoa. Kategoria desorekatuenak ekoizpena (%39), gidoia (%33), zuzendaritza (%32) eta muntaketa (%31) dira, ordena horretan.

«Ikusitako filmak ekoizpen orokorrari badagozkio, hautatutakoaren ardura Zinemaldiarena da», nabarmendu zuten jaialdiko ordezkariak, eta

zehaztu zuten urtean ekoiztakoetatik programatutako 174 filmen artean, emakumezko gidoiari, zuzendari, musikagile eta muntatzaileen proportzio handiagoa dagoela ikusitako film guztien multzoan baino.

Hala ere, Sail Nagusian, emakumezko zuzendarien beherakada erregistratu da iazko zifrekin alderatuta (%43tik %30era). Zinemaldiak, Esther Garcia ekoizleak Donostia saria jasotzean esandakoa bere eginda, hau adierazi zuen: «Asko dago oraindik egiteko. Urrats bat ere ez atzera, lagunok».



2025eko Zinemaldiko irudia, Kursaal atarian. Jon URBE | FOKU